

Añorga

Rezola greban hogeit urte eta gero

Lierni Otamendi |fno.: 943363436|

1979ko maiatzean egin zen azken greba Cementos Rezola enpresan. Orduetik hona, protesta ekintzarik izan da, baina ez dira erabaki hau hartzera iritsi. Enpresa eta langileen arteko lan hitzarmena berritzeko garaian ez dago adostasunik eta langileak ostegun eta ostiraletan greba egiten ari dira. Aste honetan egiten ari dira, beraz, azken urteotako bigarren lan-uztea (maiatzak 11 eta 12), eta horrela jarraitzeko asmoa dute, proposamenik izan artean.

Azpikontratatuak enpresarik ez

Enpresak eta langileak ez datoz bat. Rezolak enpresa bat azpikontratatu nahi du Aranburu eta Arrigorriagako harrobiak kudeatzeko. Harrobian orain arte aritutako langileek enpresako beste lanpostu batzuk beteko lituzkete lan baldintza eta soldata berekin.

Langileek, berriz, asmo



Rezola enpresako langileak greba egiten ari dira ostegun eta ostiraletan. Egunotan gutxieneko zerbitzuak betetzen ari dira.

horren aurka egin dute. Ez dute azpikontratatuak enpresarik nahi eta langile kopurua gutxitzeko arriskua dagoela diote. Bestalde, %7ko soldata igoera eskatu dute eta aurrerapenak gerora ordaintzeko aukera izatea. Luzerako diren bajei dagokienez, egoera bakoitza Enpresa Batzordeak aztertzeko eskatu dute. Horrez gain, osasun eta lan

arलो baldintzei buruz aurrez egindako azterketako ondorioak lau urteko epean ezartzea nahi dute. Eta, azkenik, ordua-formazioaren arteko igoera exijitu dute, konbenioan zehazten denaren arabera.

Greba ostegun eta ostiraletan

Konbenioan sarturik dauden langile guztiak ari dira greba egiten. Ostegun eta ostiraletan, beraz, Añorga eta Arrigorriagako lantegiak geldirik daude. Dena den, gutxieneko zerbitzuak betetzen ari dira, eta huelga egunetan enpresa osoan hiru langile aritzen dira lanean. Hala ere, gutxieneko zerbitzuen inguruan ere izan da gatazkarik, izan ere, Arrigorrian aritu ziren hirurak zigortzeko asmoa du bertako zuzendariek ez zutelako beren eguneroko lana bete, kontuan hartu gabe gutxieneko zerbitzuak betetzen ari zirela.

Altza

Drogak mahai gainean

Larraitz Garmendia |fno.: 943391267|

askagintza Altzan taldeak drogei buruzko ihardunaldiak antolatuko ditu maiatzaren 17 eta 18an. Bertan, Hegoamerikako egoera hurbilaraziko digute, besteak beste.

Venezuelatik etorritako Elsie Rosales eta Guillermo Gutierrez izango ditugu hizlari.

Elsie Rosalesek Zientzia Penalaz aztertzen du Venezuelako Unibertsitatean eta droga trafikoaren aurka Ande inguruko herrialdeetan egiten den zigor politikaren berri emango digu. Hitzaldia datorren asteazkenean egingo da, 19.30etatik aurrera, Casares kultur etxean.

Ostegunean, hilak 18, aldiz, Guillermo Gutierrezen txanda izango da. Gutierrezek Ekuadorreko espetxeetako bizimodua erakutsiko digu erreportai batean. Zehatz mehatz, droga dela eta, preso sartu dituztenak nola bizi diren ikusi ahal izango dugu. Ondoren, solasaldia egingo da. Ekitaldia Casares kultur etxean izango da 19.30etan.

Horrez gain, ekitaldi osagarriak ere izango dira hilabete zehar. Hilaren 8tik 19ra liburu erakusketa ikusgai izango da kultur etxeko liburutegian. Hilaren 12an, 18.30etatik aurrera, Trapu Zaharra antzerki taldeak "La averia" lana eskainiko du.



IPURU S. L.
ERAIKUNTZAK



Askatasunaren Hiribidea, 7 - 4º F
Tfnoa.: (943) 42 41 21 • 20004 DONOSTIA

Martutene

Martuteneko jaiak kolokan

Amaia Etxeberria | Tfnoa.: 943-21 09 37 |

Auzo elkarteak ez ditu jaiak antolatuko

U rriaren 12an, Pilari-ka eguna dela eta Martu-tenen festak ospatzen dira. Urtero arazoak izan dituzte: helduen parte hartzea urria, Festa Batzordean gazterik ez dagoela... Aurten benetako arazoa dute: Martutene festarik gabe gera daiteke.

Urtero Auzo elkartekoek antolatu izan dituzte jaiak, baina aurten, joan den urtean aurreratu zuten bezala, ez dituzte antolatuko.

"Auzotarrek festez gehiago arduratzea nahi dugu, eta jai batzordea sortzea. Batez ere, gazteek parte har dezaten nahi dugu. Gu jada



Aurten, beharbada, ez dira honelako irudiak errepikatuko auzoan. Izan ere, Martutene jairik gabe geratzeko arriskuan dago.

nekatuta gaude", adierazi digu Jose Yabenek, Auzo elkarteko buruak.

Auzo Elkarteak hartu duen erabakiaren berri emateko, auzo guztian kartelak ezarri zituen. Kartel horietan auzotarrei maiatzaren 4an festei buruz hitz egiteko deialdia egin zitzaion. Auzotarrek, ordea, ez zioten deialdiari

erantzun, ez baitzen inor azaldu bilerara. Hala ere, Auzo Elkarteak, berriz ere, bilera baterako deialdia egiteko asmoa du. *"Bigarrena eta azkena izango da"*, diosku Yabenek.

Denboraz estu

Urria berehala dator eta denbora gutxi gelditzen da

jaiak antolatzeko, *"beste urteetan sei hilabete lehenago hasten ginen antolaketa-rekin"* jakinarazi digu Yabenek. Bestalde, KTE-ek auzo jaietarako diru laguntzak eman ohi ditu. Baina horretarako eskaera egin behar da, jaiak noiz izango diren zehaztuz eta arduradun baten izena emanez. Izena emateko epea maiatzaren 29an amaituko da. Data honetatik aurrera izena eman ez duten auzoek ez dute laguntzarik jasoko. Beraz, denbora gutxi dute auzotarrek.

"Egindako deialdian jendeak izan zuen erantzuna ikusirik, auzotarrei ez zaizkiela festak axola dirudi. Guk jaiak egon daitezen nahi dugu, baina gazteek eta jende berriak hartu behar dute antolaketaren ardura. Pena litzateke Martutene jairik gabe gelditzea", dio Yabenek.

Jose Yaben:

"Auzotarrek jaietz arduratzea nahi dugu"




ZERBITZU IRAUNKORRA: 943-39.07.12
DONOSTIA ETA GIPUZKOAKO OSPITALETAN

BULEGO NAGUSIA: Hondarribia, 28 - DONOSTIA
Tfnoa.: 943-42.87.79 • 943-42.17.86
P.K.: 672

BULEGOAK: ANDOAIN, PASAIA, ERRENDERIA, HERNANI, LASARTE-URNIETA, TOLOSA ETA ASTIGARRAGA

- Jarraiko ordutegia: 13.00etatik 23.30ak arte.
- Kazolako bat, kafea edota garagardoa hartzeko Urbia eta QQTn kopa.
- Ordubateetatik gaureraino jarraian.



Portu kalea 7, Donostia
Tfnoa.: 943-425782

taberna jatetxea

TXISKUENE



- Eguneko menuak
- Afariak
- Ospakizunak

Begiristain pasealekua 85
(Hospitaletoako bidea) • Tfnoa.: (943) 45.09.87

Odontologia Klinikak

Dr. Beobide

Ametzagaña 49
Tfnoa.: (943) 276227

Medikua - Odontologia